



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ADISKIDE ETA SENIDE

GARIZUMA ALDIAN 2021

14-16 URTEKOENTZAT



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

AURKEZPENA

Kristauontzat, Jesusen atzetik jarraitu nahi dugunontzat garrantzitsua den **Garizuma aldia** gaude, izan ere, jain handirako prestatzen dihardugu. Garizuma aldia, Jainkoak bizitzarako egitasmo bezala amestu duena –bere bizia ere emateraino- gure artean egia bihurtzen “saiaitzeko” aldia da.

Aurten, *ADISKIDE ETA SENIDE – COMUNIDADES ACOGEDORAS* ekimena jarri da martxan, Garizuma eta Pazko aldia gizarte, karitate eta misiolari konpromisoa era berezian lantzeko asmoarekin. Planteamendu hau, Frantzisko Aita Santuak Fratelli tutti entziklikan proposatzen digun gizarte senidetasun eta adiskidetasunerako deiak sendotzen eta indartzen du.

Proposamen horren arabera, ahulezian daudenak, etorkinak, behartsuak, langabetuak, bakarrik daudenak, gaixoak, baztertuak,... «hartu, babestu, sustatu eta integratu» egin behar ditugu.



AZALPENA

Jarduera hau, ordubete eta erdi edo bi orduko saioan egiteko pentsatuta dago. Hiru zati ditu, hain zuzen ere, ikusi, epaitu eta ekin aldiei dagozkienak.

**** Talde bakoitzak ikusi aldiko jarduera bat, bi ala hirurak egin ditzake.**

Lekuan lekuko taldeetara eta neska-mutikoengana egokituko dira jardunbideak.

Helburuak:

- Etorkinen egoera ezagutu
- Gazte etorkinen inguruan dituzten sineste eta pentsamenduez jabetu
- Taldeari elkarre abegitsu izaten lagunduko dioten konpromiso txikiak hartu

**1**

NOR DA NOR?

Zenbat jende bildu den kontuan hartuta, taldeak osatu. Partaide bakoitza erdian dauden paperetako batean agertuko den pertsona izango da. Zein pertsona den ikusi gabe, paperra bekokian ipiniko du eta gainerako partaideek bakarrik ikusiko dute zein egokitu zaion. Gauza bera egingo dute partaide guztiek. Sinonimoen bidez, nor diren asmatzen saiatuko dira

Partaideetako batek begirale lanak egingo ditu eta taldekideek asmatu beharreko pertsona hori definitzeko darabiltzaten sinonimo edo izenondoez ohartuko da (egokia litzateke idatziz jasotzea, gero batera jartzeko):

- MENA (Bakarrik iritsi den adin txikiko atzerritarra)
- JENA (Bakarrik iritsi den gazte atzerritarra)
- Emakume errefuxiatua
- Gizon atzerritarra
- Etorkina
- Langabetua – bitartekorik ez duena
- Bizilekurik gabekoa - eskalea

Bigarren txanda batean, adin txikiko/gaztea bere herrialdetik ihes egitera bultzatzen arrazoiak erabil daitezke:

- Dirua
- Ikasketak
- Bizi kalitatea
- Gerra herrialdean
- Gosea
- Pobretasuna
- Familiaren egoera





Nor naiz? Pertsona...

2

ZURE USTEZ...

Migrazioen gaia dela-eta, neska-mutilek aldeztu aurretik zein ideia duten ikusi nahi da. **AURRETIKO GALDERAK...** Galdera hauei ahalik eta bizkorren eta bakarka erantzun behar diegu.

Bi taldetan banatuko dira. Taldeetako batean, galdera hauei erantzungo diete:




Deskribatu berri ditugu egoeretako bat (etorkinak, bizilekurik gabekoak, langabetuak...) bizi duten pertsona ezagunak (gertukoak) gogora ditzatela.

Idatz dezatela kartulina zati batean gutxienez pertsona horietako baten izena. Idatzi ondoren, gorde dezatela kartulina aste santuan berreskuratzeko.



Hasi aurretik, gogoeta egin eta etorkinei buruz duten irudia idazteko eskatuko diegu.

Bi bideoak ikusiko ditugu:



Egunkarietako (1. eranskina - sakatu hemen deskargatzeko) hainbat izenburu ozen irakurri eta banan-banan, aldeko edo aurkako jarrera har dezatela.

Iritziak argudiatu eta horien inguruan eztabaidan jardun.

Bideoak ikusi eta egunkarietako izenburuak landu ondoren, batera jarri:

- **Zer gertatu zaigu deigarrien?**
- **Zein irudi dugu orain etorkinez? Bat ote dator aurretik genuen irudiarekin?**
- **Nola hartzen ditugu pertsona horiek?**
- **Erantzuten diegu beren beharrei? Nola?**
- **Zeri ezin diogu erantzun? Zergatik?**
- **Zer egiten dugu errealitate horren aurrean?**
- **Zerdiosku Jesusek?**



**** Batera jartzeko une honetan, elkarrizketan jardun dezakegu edo buru edo bihotzera iristen zaigun guztia marraztu egin daiteke... Era batera edo bestera irudika dezatela eta taldean batera jarri.**

ERREALITATE HORI EBANJELIOAREN ARGITAN AZTERTU

SAMARIAR ONAREN PARABOLA (LK 10, 25-37)

ORDUAN, LEGE-MAISU BATEK JAIKI ETA AZPIKERIAZ GALDETU ZION:

–MAISU, ZER EGIN BEHAR DUT ONDARETZAT BETIKO BIZIA JASOTZEKO?

JESUSEK ESAN ZION:

–ZER DAGO IDATZIA MOISESEN LEGEAN? ZER IRAKURTZEN DUZU?

HARK ERANTZUN:

–MAITA EZAZU JAUNA, ZEURE JAINKOA, BIHOTZ-BIHOTZEZ, GOGO OSOZ, INDAR GUZTIZ ETA ADIMEN GUZTIZ. ETA LAGUN HURKOA ZEURE BURUA BEZALA.

JESUSEK ERANTZUN ZION:

–EDERKI ERANTZUN DUZU. BETE HORI ETA BIZIA IZANGO DUZU.

BAINA LEGE-MAISUAK, BERE GALDERA BIDEZKOA ZELA ADIERAZI NAHIRIK, GALDETU ZION JESUSI:

–ETA NOR DA NIRE LAGUN HURKOA?

JESUSEK ERANTZUN ZION:

–BEHIN BATEAN, GIZON BAT ZIHOAN JERUSALEMETIK BEHERA JERIKORANTZ ETA LAPURREN ESKUETAN ERORI ZEN: ZEUZKANAK KENDU ETA, EGURTU ONDOREN, ALDE EGIN ZUTEN, ERDI HILIK UTZIZ. APAIZ BAT GERTATU ZEN, HAIN ZUZEN, BIDE HARTAN BEHERA, ETA, GIZONA IKUSTEAN, BIDETIK OKERTU ETA AUERRERA JO ZUEN. GAUZA BERA EGIN ZUEN HANDIK IGARO ZEN TENPLUKO LEBITAR BATEK ERE: IKUSTEAN, BIDETIK OKERTU ETA AUERRERA JO ZUEN. BAINA BIDAIA ZEN SAMARIAR BAT BERTARA IRITSI ETA, HURA IKUSTEAN, ERUKITU EGIN ZITZAION. HURBILDU ETA ZAURIAK LOTU ZIZKION, OLIOZ ETA ARDOZ IGURTZI ONDOREN: GERO, BERE ASTO GAINEAN EZARRI, OSTATURA ERAMAN ETA BERE ARDURAPEAN HARTU ZUEN. BIHARAMUNEAN, ZILARREZKO BI TXANPON ATERA ETA OSTALARIARI EMAN ZIZKION, ESANEZ: «ZAIN EZAZU ETA, GEHIAGO GASTATZEN BADUZU, HURRENA NATORRENEAN ORDAINDUKO DIZUT». ZURE USTEZ, HIRUROTAN ZEINEK JOKATU ZUEN LAGUN HURKO BEZALA LAPURREN ESKU ERORITAKO GIZONAREKIN?

LEGE-MAISUAK ERANTZUN ZION:

–HARTAZ ERUKITU ZENAK.

JESUSEK ESAN ZION, ORDUAN:

–ZOAZ ETA EGIN ZUK ERE BESTE HORRENBESTE.

- *Zer diosku Jesusek parabola honetan?*
- *Guretzat, nor da lagun hurkoa?*
- *Zer egingo genuke antzeko egoeran?*
- *Zein sentipen sortu zaigu?*
- *Nola sentitzen ote dira beraiek?*
- *Zein ilusio eta aukera ikusten dugu honetan?*
- *Zein zailtasun*



Landutako guztia kontuan hartu eta guk ditugun aukerak ez dituzten pertsona horien aurrean jarriko gara.

- ***Zer ikasi dut saioan? Batera jarri***
- ***Zer egin dezaket egoera hau aldatzeko?***
- ***Zer egin dezakegu talde bezala egoera hau aldatzeko?***

** Egokia da hartzen diren konpromiso txiki horiek idatziz jasotzea, hurrengo batzarrean ebaluatu ahal izateko.

